

MADAME KONTXEXI - URIBE BRIGADA & DETECTIVE



**ANJEL
LERTXUNDI**

**SARDINA
EZPAIN GORRIAREN
KASUA**

erein



"Behin

Fokker hegazkin zahar-
rean, azafatak besotik heldu eta
hegazkinaren barrura eraman zuen
Bixentiko, gainerantzeko bidaiariak atzean
utzi ondoren:

—Nahi duzun tokia hautatu, Caracolillo, ongi
etorria Fokker-era.

Bixentikok anteojo beltzak sudur puntaraino jaitsi eta
inguruak miatuz:

—Segurua al da hegazkin hau?

—Segurua? Bigarren gerrate mundialetik honantza
ez du istripu bakar bat ere izan.

Hegazkinaren zehaztasun tekniko ugari eman
zizkion azafatak Bixentikori. Eta hegazkinaren
kalitatea indartzeko asmoz:

—Fokker-ik ez zeukalako galdu
omen zuen gerra Hitler-ek",